



IKASKUNTZAREN KUDEAKETA ENPRESAN ESPEZIALIZAZIO UNIBERTSITATE DIPLOMA

CLO,

Chief.
Learning.
Officer.



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Herakuntza
Zientzien Fakultatea

TEAMLABS

Each square has a story
On team

CLO,

**Chief.
Learning.
Officer.**

Chief Learning Officer (CLO) Erakundeetako Ikaskuntzaren Kudeaketan Especializazio Diploma

/Informazio txostena/



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Facultad de Humanidades y
Ciencias de la Educación**

TEAMLABS!
Look again/Think again/
Do again/

Aurkibidea:

Zer da CLO,?

Ikaskuntza erraztea eta erakundeetako berrikuntza

4,

Zergatik CLO,?

Rol-aldaketa aldaketa-testuinguruetan

5,

Nolakoa da programa?

Ikaskuntza-esperientzia

6,

Zertarako CLO?

Irteera-profila

9,

Zer prezio du?

Ordainketa malguak, prestakuntza hobariaduna

10

Laburpena

Datu gakoak

11,

3,

Zer da CLO,?

Ikaskuntza erraztea eta erakunferetako berrikuntza

CLO, (Chief Learning Officer) **30 ECTS**ko unibertsitate espezializazio-diploma bat da, enpresetan eta beste erakunde ikaskuntza-prozesuetan dabiltzan profesionalei laguntza emateko diseinatua, gaur egungo aldaketa etengabeen testuinguruan hainbat erronka eta aukerari heltzeko metodologia praktikoak eta tresnak eskuratu ditzaten.

Programak lankidetzatik eta esperientzietatik abiatutako ikaskuntza-ikuspegia izango du oinarrian, hiru arlotan banatuta:

1. Gogoeta kritikoa, Chief Learning Officer lanbidearen eta hark enpresetan daukan rolaren inguruan. Zenbait ikuspegi analizatuz, profil profesionala garatzea (eta iraultzea) proposatzen da, hau da, prestakuntza-planen arduradun izatetik **erakundeetako ikaskuntza estrategikoaren lidergoa hartzeko eta hura errazteko funtsezko figura baterantz** egitea.

2. Proiektua, ikaskuntzak entrenatzeko eta sendotzeko aukera emango duena, eta, horretarako, proiektua egin eta berehala aplikatuko da: ikaskuntza-esperientziaren prototipo bat egingo da, **Pertsonengan Ardaztutako Berrikuntza**ren arloko printzipioetan oinarrituta eta programak aurrera egin ahala iterazioa bultzatuz.

3. Praktika, hots, ikaskuntza eta berrikuntza erraztea **soft skill**en araberakoa da, zeinak maila teoriko batean eskuratzen zailak baitira, praktikaren eta haien gaineko gogoeta etengabearen mende dauden heinean. Programan zehar, beraz, programako beste pertsona batzuekin batera **eginez ikasteko** egoera erreal edo sortuak baliatuko dira.

Chief Learning Officer (CLO) espezializazio-diploma Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Teamlabs ikaskuntza erradikalerako laborategiak garaturiko proiektu bat da. Hala, beren esperientziak batuz, programa bat osatu dute lanbide honen helmuga bilakatzen ari diren lan-lerro berriak arakatzeko.

Zergatik CLO,?

Rol-aldaketa aldaketa-testuinguruetan

Erakundeetan ikastea sekula baino beharrezkoagoa da gaur egun, baina ez, orain arte bezala, prestakuntza edo instrukzio gisa ikasita.

Testuinguru horretan ezinbestekoa da rola aldatzea, baita erakundeetan ikaskuntza kudeatzen diharduten pertsonen estrategiak aldatzea ere.

Gaur egun, eraldaketa digitala da kontzepturik erabiliena eta bilatuen. Teknologia oso azkar ari da gure mundua aldatzen, eta enpresak egokitzeko ahaleginean ari dira; horretarako, produktu berriak sortu edo tresna digital berriak bereganatzen dituzte.

Baina, eraldaketa horretan, pertsonak eta erakundeetako ikaskuntza-kultura ere funtsezkoak dira.

Langileek beren zereginak modu eraginkor, berritzaile eta moldagarrian egiteko behar dituzten ezaguntzak eta trebetasunak eskuratzeko helburuarekin langileek inplementatu dituzten prozesu eta praktikez ari gara.

Chief Learning Officer batek beharrezko gaitasun eta trebetasunak entrenatzen ditu enpresetako (edo beste erakunde batzuetako) pertsonekin, ziurgabetasunean nabigatzen lagundu nahian. Zehazki, lantaldeei laguntza ematen die alderdi hauetan:

- 1.** Mentalitate malguago bat garatzea, etengabeko aldaketara egokitua eta erroreetara irekia.
- 2.** Erakundeko pertsona guztiek ikaskuntza- eta aldaketa-prozesuak kosortzeko trebetasun eta tresnak sustatzea.
- 3.** Taldean lan egitea elkarrekin kolaboratuz, parte-hartzea eta adostasuna erraztuz.
- 4.** Erakundean etengabeko ikaskuntzarako prozesuak ezartzea, bai kanpo-eragileekiko harremanetan, bai lantaldeetako kideen artekoetan (pareen arteko ikaskuntza).

Nolakoa da programa?

Ikaskuntza-esperientzia

#0. Hasiera

WS1. Ongietorria: Aloha! + proiektuen diseinua.

#01. PROIEKTUA DISEINATZEA [6 ECTS]

Moduluaren helburua proiektua garatzeko prozesuan laguntza eskaintzea da. Hala, hasierako prototipoa egin, eta, gero, haren jarraipena egingo da, *one to one* mentoretzaren bitartez, programa osoan zehar.

Hasierako prototipoa lankidetzan egingo da, proiektuak pertsonalak izan arren. Hasteko, Design Thinking-aren oinarritzko alderdiak esperimentatuko dira, proiektua eta/edo ikaskuntza-esperientzia diseinatzeko oinarri hackeagarri gisa.

#02. LANTALDEAK ERRAZTEA [6 ECTS]

Zure erakundeko ikaskuntzaren eta berrikuntzaren erraztaile zaren aldetik, lantaldean ikasteko kontzeptu eta metodologiak oinarritzkoak dira zure lanean, ikasten duen lantalde bat eratzeko esperientziara bideratuta.

Moduluaren helburua lantalde baten ezaugarri garrantzitsuenak ulertzeko metodologiak eta tresnak ematea eta haren bertsiorik onena erdiestea da.

#03. COMPLEXITY NAVIGATION [6 ECTS]

Moduluaren garapenean, Humantific lan-metodologian definituriko pauso jakin batzuk beteko dira, konplexutasunean nabigatzen ikas dezazun.

Hainbat diziplinatako tresna eta trebetasun oinarritzko eta espezifikoekin lan egingo duzu: arazoen ebazpen sortzailea (CPS), zentzua eraikitze diseinua eta bisualizazioa (Sense Making) eta egokitze gaitasuna prozesu guztian zeharreko jarrera zeharkako eta jarraitu gisa.

#04. LEARNING ANALYTICS [6 ECTS]

Moduluaren xedea pertsonok sortzen ditugun datuak erabiliz arazoak konpontzera iristeko tresnak praktikan jartzea da.

Aukerako hainbat modulu txikiren bidez, hala nola Organizational Learning Analytics, Reading Analytics, Psikometria Modernoa, Maya Psikometria edo Experience Analytics, ikaskuntzaren analitikaren hainbat alderdi ezagutuko dituzu, autoanalisia, interakzioa eta, jakina, Excel tresna gisa erabiltzea oinarri hartuta.


#05. IKASKUNTZA -ETA BERRIKUNTZA- EKOSISTEMAK [6 ECTS]

Azken moduluan, arreta jarri nahi dugu pertsonen eta erakundeen ikaskuntzaren balioan eta berrikuntza-prozesuetan duen itzulpenean. Horretarako, «Ekosistema» kontzeptua ulertzeko behar diren gakoetan sakonduko da, ikaskuntzarako eta berrikuntzarako ekosistemaren prototipo-diseinu bat sortzeko eta inplementatzeko, ingurune fisiko eta birtualetatik hasi eta garatzeko, eragileetatik (erakundea eta komunitatea) pasatuta, baita hura sostengatzen duten prozesu, ideia eta proiektuetatik eta hura marrazten duten muga aliantzetatik eta sareetatik ere.

Horrela, orain arte eskuratutako edukiak eta tresnak kokatu ahal izango ditugu, ikaskuntza-esperientzia esanguratsu batean murgiltzeko eta ideia horiek guztiak errealitate bihurtzeko.

#6. ITXIERA


WS8. Programaren itxiera: ikaskuntzari buruzko hausnarketa + ekitaldi publikoa.



Erraztailea,

Sareko ikaskuntza-prozesua erraztuko dizun pertsona da. Hala, eduki, metodologia eta jardueri buruzko zalantzak argituko dizkizu, eta laguntza emango dizu gure Moodle plataformako ikaskuntza-prozesuan aurrera egiten jarrai dezazun.

Horretaz gainera, zure proiektua CLOn zehar definitzen eta iteratzen lagunduko dizu.



LEARN
TEACH
EACH
OTHER

Zertarako CLO?

Irteera-profila

Gero eta beharrezkoagoa da enpresek ikaskuntza eta berrikuntza errazteko arduradun bat izatea (Chief Learning Officer, CLO, ingelesez). Profil profesional berri horrek aldaketarako, eraldaketa digitalerako, ikaskuntzarako eta berrikuntzarako prozesuen lidergoa izango du, ingurune ziurgabe eta aldakor batean.

AEBn, enpresa gehienetan badute halako pertsona bat, eta Espainian ere hasiak dira eskatzen.

Titulu honi esker, erakunde batean ikaskuntza- eta berrikuntza-estrategiak alait azkarren aplikatzeko tresna praktikoak eskuratuko dituzu.



LEARN TOGETHER

FAIL TOGETHER

LIGHT IT UP ↑

Zer prezio du?

Ordainketa malguak, prestakuntza hobariduna

Chief Learning Officer espezializazio-diplomaren prezioa 6.000 € da guztira.

3 edo 5 kuota berdinetan ordainketa egiteko aukera izango duzu, honako data hauetan:

- **3 kuotetan:** matrikula egiterakoan, abenduan eta martxoan.
- **5 kuotetan:** matrikula egiterakoan, azaroan, abenduan, otsailean eta martxoan.

Gainera, erakunde bereko 2 pertsonen edo gehiagok izena ematen badute, 1.200 €-ko (% 20) deskontua aplikatuko dugu bigarren pertsonatik aurrera.

*FUNDAEren bidez matrikularen kostuaren % 50etik gorako hobaria lor dezaketen erakundeak izan ezik, horiek matrikula bakoitzaren % 100 ordainduko baidute.

Programak % 100eko hobaria izan dezake Fundae-n.

Alegia, dirurik inbertitu gabe ere egin dezakezu CLO, hots, zure denbora soilik inbertituz. Behar duzun gauza bakarra zure enpresari eskaera egitea da (erakundeek dute kredituaren hobaria jasotzeko aukera).


Hortik aurrera, gure kontu egingo dugu kredituari dagokion kudeaketa, aholkularitza eta egiaztapena, aholkulari espezializatuen bitartez.

Mondragon Unibertsitateko Hezkuntza eta Humanitate Zientzien Fakultateko **ikasle ohia bazara** eta Alumni Mondragon elkartean alta emanda bazaude, %5eko deskontu gehigarria izango duzu (300 €).

LEARN TOGETHER

FAIL TOGETHER

LIGHT IT UP



Laburpena

Datu gakoak

Kreditu kopurua: 30 ECTS.

Modalitatea: erdi-presentziala. Online, eta presentziala, ostiral eta larunbateko tailerretan.


8 workshop presentzial

- #WS1. Aloha! + proiektua diseinatzea.
- #WS2. Proiektua diseinatzea II.
- #WS3. Lantaldeak erraztea.
- #WS4. Complexity Navigation I.
- #WS5. Complexity Navigation II.
- #WS6. Learning Analytics.
- #WS7. Ikaskuntza eta Berrikuntza-Ekosistemak.
- #WS8. Ikasturtearen itxiera eta ikaskuntzen uzta.

Hizkuntza: euskaraz edo gaztelaniaz, online-plataforman. Workshopak aditu erraztaileen hizkuntzan egingo dira (gaztelaniaz eta/edo gaztelaniaz eta euskaraz).


♥ INNOVATE

click click
click





Kontaktua
lit@mondragon.edu
+34 600 022 720



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea
Faculty of Humanities
and Education Sciences

TEAMLABS

Look again/Think again/
Do again/